

## I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

### ARABAKO BATZAR NAGUSIAK

#### **9/2021 Mozioa, otsailaren 10ekoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruz bai eta arreta-sare publiko artikulatu bati buruz**

Arabako Batzar Nagusiek, 2021eko otsailaren 10ean egindako osoko bilkuran, ondorengo mozioa onetsi zuten:

9/2021 Mozioa, otsailaren 10ekoa, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemari buruz bai eta arreta-sare publiko artikulatu bati buruz.

1. Arabako Batzar Nagusiek berretsi egiten dute Gizarte Zerbitzuen abenduaren 5eko 12/2008 Legearen 5. artikulua Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistemaz ematen duten definizioa, hain zuzen ere arreta-sare publiko antolatu bat, erantzukizun publikokoa, titulartasun publikoko eta pribatu itunduko prestazio, zerbitzu eta horniduraz osatua.

2. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote lankidetzan aritu dadila euskal instituzioekin Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema garatzeko, arreta emanez ikuskera komunitarioari eta kalitatearen, berrikuntzaren eta zaintza eta efizientziaren arteko oreka berriaren printzipioei.

3. Arabako Batzar Nagusiek Arabako Foru Aldundiari eskatzen diote jarrai dezala, arloan eskumenak dituzten administrazio publiko guztiekin eta euskal hirugarren sektorearekin batera, Gizarte Zerbitzuen Euskal Sistema etengabe eguneratzeko lanetan.

Vitoria-Gasteiz, 2021eko otsailaren 10a

*Presidente*

**PEDRO IGNACIO ELÓSEGUI GONZÁLEZ DE GAMARRA**